## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 452600 URAREN OSOKO ZIKLOA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Arabako Lurralde Historikoko hiriguneetan edateko uraren hornidura eta hondakin uren arazketa bermatzea da programa honen helburua.

Bi xede horiei begira, programa honek aurreikusten du aldez aurreko azterlanak, proiektuak eta obrak egitea, hornidura eta saneamendu gaietan eskumena duten toki erakundeen eskaerei erantzuteko.

Hala, zehazki, aurreko urteetan Hornidura eta Saneamendurako 2016-2026 Gida Plana prestatu zen, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 3ko 228/2018 Erabakiaren bidez onetsia, eta horren testuinguruan idazten dira gaur egun proiektuak eta egiten dira azaleko edo lur azpiko urak aprobetxatzera bideratutako obrak (biltegi erregulatzaileak, zundaketak, ponpatze estazioak, banaketa sareak, etab.), baita hondakin uren tratamendutegi eta saneamendu kolektoreak ere.

Gida plan hori egitearen emaitza modura ondorioztatu zen uraren ziklo osoaren kudeaketa eredu berria bultzatu behar dela, ezarritako esparru legala betetzen lagunduko duena; hala, beste aurrerapauso bat emango da lurralde honetako uraren ziklo osoaren bermea eta eraginkortasuna hobetu eta berrantolatzeko.

2017an, Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan aritzeko esparru akordioa berritu zen, Araban obra hidraulikoak egiteko. Esparru horretan, inbertsio batzuk ere sartzen dira.

Programa horren barnean diru sarrerak sortzen dira, orobat, hondakin urak tratatzeko zenbait araztegi elkarrekin ustiatu eta zaintzeko toki erakunde batzuekin sinatutako hitzarmenen ondorioz, bai eta Gaubeako HUAn putzu septikoen lohien tratamenduagatik ere.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 452600 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El objeto de este programa es garantizar el abastecimiento de agua potable y la depuración de las aguas residuales de los núcleos urbanos del Territorio Histórico de Álava.

Para la consecución de este doble objetivo, el programa prevé realizar estudios previos, proyectos y obras que atiendan las demandas de los entes locales competentes en materia de abastecimiento y saneamiento.

Así, en concreto, se elaboró en años anteriores el Plan Director de Abastecimiento y Saneamiento 2016-2026, aprobado por Consejo de Diputados 228/2018, de 3 de mayo, y en el marco del mismo se redactan actualmente proyectos y se ejecutan obras encaminadas al aprovechamiento de las aguas superficiales o subterráneas (depósitos reguladores, sondeos, estaciones de bombeo, redes de distribución…), así como estaciones de tratamiento de aguas residuales y colectores de saneamiento.

Resultado de la elaboración de ese mismo Plan Director, se concluyó con la necesidad de impulsar un nuevo modelo de gestión del ciclo integral del agua que ayude a dar cumplimiento al marco legal establecido, dando así un paso más hacia la reorganización y mejora de la eficiencia y garantía del Ciclo Integral del Agua en este territorio.

En el año 2017, se renovó el Acuerdo Marco de colaboración con la Agencia Vasca del Agua para la ejecución de obras hidráulicas en Álava, marco en el que también se encuadran algunas inversiones.

Dentro de este programa se generan también ingresos procedentes de los convenios firmados con varias entidades locales para la explotación y mantenimiento conjunto de varias estaciones depuradoras de tratamiento de aguas residuales, así como por el tratamiento de lodos de fosas sépticas en la EDAR de Valdegovía.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS

## 2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 452600 URAREN OSOKO ZIKLOA

### GAUZATZE MAILA

Programatutako helburuak betetzeko, 4.010.593 euroko azken aurrekontua erabili da, lurrak kudeatzeko egindako transferentziak barne. Horietatik 3.598.622 euro arlo hidraulikoko azpiegiturak eraikitzeko edo hobetzeko erabili dira.

Arabako Lurralde Historikoko herriguneen arazketa ziurtatzeko helburuaren barruan, Iruña Okako HUArekin lotzeko Monteviteko kolektorearen obrak amaitu ziren, 2022an 400.169 euro inbertituta, eta horrela amaitutzat eman zen 2021ean hasitako jarduketa hori.

Kontrastako araztegi eta ponpaketa estazio berria egiteko lanak amaitu ziren, eta 486.461 euro inbertitu ziren.

Arabako egungo arazketa sistemen efizientzia eta funtzionamendua hobetzeko, hobekuntzak egin ziren Dulantzi, Agurain, Gaubea, Zuhatza uhartea, Maeztu, Bernedo, Ribabellosa, Done Bikendi Harana, Santikurutze Kanpezu eta Izarrako araztegietan. Horrek, oro har, 62.946.37 euroko inbertsioa ekarri zuen, besteak beste Ribabellosa eta Bernedoko araztegietan eguzki plakak instalatzea barne. Azken jarduera hori 2021ean hasi zen.

Arabako Lurralde Historikoko herriguneen hornidura hobetzeko eta bermatzeko helburua betez, 2022an Murgako industrialdeko egungo biltegia aprobetxatzeko hodi berrien obrak hasi ziren, Laudioko erregulazioa hobetzeko. Horrek 381.079 euroko inbertsioa ekarri zuen, eta 2023. urtean obrak bukatuko dela aurreikusten da.

Era berean, Leziñanako hornidura hobetzeko obrak hasi ziren, iturburutik hoditeria berrituz, eta depositu berria eta EUTEa eraikiz. Obra horiek 2023an amaituko dira, eta 336.766 euroko inbertsioa eragin zuten 2022an.

43.793 euroko inbertsioarekin, Urdasakon Zalduondoko hartunea hobetzeko lanak egin ziren, aurreko urteetan Fuente la Madre iturburua lotzeko egindako obren ondorioz emakida aldatzean ezarritako

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2022

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 452600 CICLO INTEGRAL DEL AGUA

### OBJETIVOS PROGRAMADOS

Para el cumplimiento de los objetivos programados se ha dispuesto de un presupuesto final de 4.010.593 € incluyendo las transferencias efectuadas para gestión de terrenos, de los cuales se han destinado a la construcción o mejora de infraestructuras en materia hidráulica 3.598.622 €.

Dentro del objetivo de asegurar la depuración de los núcleos del Territorio Histórico de Álava, se finalizaron las obras del colector de Montevite para su conexión con la EDAR de Iruña de Oca, con una inversión en 2022 de 400.169 €, dando así por finalizada esta actuación iniciada en 2021.

Se finalizó la ejecución de las obras de la nueva depuradora y estación de bombeo de Kontrasta, invirtiéndose 486.461 €.

Al objeto de mejorar la eficiencia y control del funcionamiento de los sistemas depuradores actuales alaveses, se llevaron a cabo mejoras en las plantas depuradoras de Alegría, Agurain, Valdegovía, Isla de Zuaza, Maeztu, Bernedo, Ribabellosa, S. Vicente de Arana, Sta. Cruz de Campezo e Izarra, lo que en global supuso una inversión de 62.946.37 €, incluyendo entre otras cosas la instalación de placas solares en las depuradores de Ribabellosa y Bernedo, ésta última actuación iniciada durante el año 2021.

En cumplimiento del objetivo de mejorar y garantizar el abastecimiento de los núcleos de población del Territorio Histórico de Álava, se iniciaron este año 2022 las obras de nuevas conducciones para aprovechar el actual depósito del polígono industrial de Murga para mejorar la regulación de Llodio. Esto supuso una inversión de 381.079 €, estando prevista la finalización de estas obras durante el año 2023.

Igualmente, fueron iniciadas las obras de mejora del abastecimiento de Leciñana del Camino con la renovación de la conducción desde el manantial y la construcción de un nuevo depósito y ETAP. Estas obras, que serán finalizadas en 2023, implicaron una inversión de 336.766 € en 2022.

Con una inversión de 43.793 € se llevaron a cabo los trabajos de mejora de la captación de Zalduondo en Urdasakon, dando así respuesta al condicionado impuesto en la modificación de la concesión con

baldintzei erantzunez.

Era berean, Ozetako zundaketa herri horretako andelarekin lotu zen, hartune horretatik bertatik hornitu ahal izateko larrialdiren bat gertatuz gero. Horrek 44.671 euroko inbertsioa ekarri zuen.

24.198 euroko inbertsioarekin, Larrazubiko banaketa sarea 2020an eraikitako biltegitik hodi berriarekin konektatu zen.

Kantauriko Urkidetza Ur Partzuergoarekin Artziniegako biltegi berria eraikitzeko sinatutako lankidetza hitzarmenaren esparruan, 2021ean hasitako eraikuntza obrekin jarraitu zen, 293.834 euroko gastua eginez 2022an.

Bestalde, Guardiako biltegia eraisteko eta berria eraikitzeko, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari dirulaguntza bat ematea onartu zen, partzuergo horrek egin beharreko obrak finantzatzeko. Dirulaguntza horrek 192.910 euroko gastua eragin zuen 2022an.

Alerta Gorriko Urteko Planaren barruko beste jarduketa batzuk ere egin ziren, eta 2022an gertatu ziren hornidurarik ezeko arriskua arintzeko zisterna kamioien bidezko ur horniduraz gain, hauek aipa daitezke: Toberako eta Lahozko zundaketak, Santikurutze Kanpezuko iturburuko hartunea eta Aguraingo larrialdiko hodia, guztira 223.615 euro larrialdietako gastuen kontura.

Eraikuntza obretarako segurtasuneko eta osasuneko gutxieneko xedapenak finkatzen dituen urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua betetze aldera, aholkularitza teknikoko lanak egin ziren obretan segurtasuna eta osasuna koordinatzearren; 29.466 euroko inbertsioa egin zen guztira.

Laguntza teknikoko lanak ere kontratatu dira, topografiari eta obra hondakinen kudeaketa kontrolatzeari lotutakoak, guztira 18.799 euro; eta azpiegitura hidraulikoetarako lursailak erosteko transferentziak eta ordainketak egin dira, 169.606 eurokoak.

Proiektuak eta azterlanak idazteko, 556.852 euroko



motivo de las obras ejecutadas en años anteriores para conexión del manantial Fuente la Madre.

Se efectuó también la conexión del sondeo de Ozaeta al depósito de esa misma localidad, de forma que pueda abastecerse en caso de emergencia desde esa captación. Esto supuso una inversión de 44.671 €.

Con una inversión de 24.198 € se ejecutó la conexión de la red de distribución de Puentelarrá con la nueva conducción desde el depósito construido en 2020.

En el marco del convenio de colaboración firmado con el Consorcio de Aguas del Kantauriko Urkidetza para la construcción del nuevo depósito de Artziniega, se continuó con las obras de construcción iniciadas en 2021 con un gasto de 293.834 € en 2022.

Por otra parte, para la demolición y construcción del nuevo depósito de Laguardia, se aprobó una subvención al Consorcio de Aguas de la Rioja Alavesa para la financiación de las obras a ejecutar por ese Consorcio, la cual supuso en 2022 un gasto de 192.910 €.

También se llevaron a cabo otras actuaciones incluidas dentro del Plan Anual de Alerta Roja, pudiendo citarse además del suministro de agua mediante camiones cisterna para paliar las situaciones de riesgo de desabastecimiento que se dieron en este año,  la actuación en los sondeos de Tobera, Lahoz, así como en la captación del manantial en Santa Cruz de Campezo y la conducción de emergencia para Agurain, destinándose en total con cargo a Gastos de Emergencia 223.615 €.

Al objeto de dar cumplimiento al Real Decreto 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, se llevaron a cabo trabajos de asistencia técnica para la coordinación de seguridad y salud de las obras ejecutadas, por un importe de 29.466 €.

Se contrataron también trabajos de Asistencia Técnica topográfica y de control de gestión de residuos de obras por un importe total de 18.799 €, y se llevaron a cabo transferencias y abonos para la adquisición de terrenos para infraestructuras hidráulicas por valor de 169.606 €.

En relación a la redacción de proyectos y estudios, se

inbertsioa egin da. Lan horien artean daude Sobrongo EUTE berriaren proiektuarekin jarraitzea, Billoda eta Trespondeko hondakin uren kolektorearen proiektuak amaitzea Iruña Okako HUArekin lotzeko, Dulantzi-Oreitia saneamendu kolektorearen proiektua eta Aramaion Ibarrako saneamendurako irtenbidearen analisia, Ozaetako HUA berriaren proiektua hastea, Uribarri Gaubeako sarearen inbentarioa egitea edo Mezkia, Turiso, Ozaeta, Hermua eta Larreako hornidura lotuneen proiektuak egitea haien bermea hobetzeko.

Emakidak legeztatzeko beste azterlan batzuk ere egin ziren, aurretik idatzitako proiektuak doitu edo berrikustearekin batera, bai eta Maeztu, Agurain, Santikurutze Kanpezu eta Izarrako araztegietan eguzki plakak instalatzeko jartzeko eta Lukiano-Aperregiko ponpaketa egiteko proiektuak ere.

Agurain, Dulantzi, Santikurutze Kanpezu, Izarra, Done Bikendi Harana, Maeztu, Bernedo, Ribabellosa, Zuhatzako uhartea eta Goiaingo eta Aguraingo industrialdeetako araztegiak batera mantendu eta ustiatzeko hitzarmenaren esparruan, 2022an zerbitzutik kanpo utzi zen Aguraingo industrialdeko araztegia, udal araztegi berrira konektatu baitzen, eta 436.615 euroko gastua egin zen araztegi guztiak kudeatzeagatik.

Gaubeako HUAren mantentze lanak ere egin ziren, 118.464 euroko kostuarekin eta 38.395 euroko kostuarekin energia elektrikoan.

2022an, piezometro monitorizatuen sareari zazpi gehitu zitzaizkion, eta 34.784 euroko inbertsioa egin zen. Horrez gain, ur emaria neurtzeko estazioak eta hamahiru piezometro monitorizatuak mantendu ziren, eta horrek 65.471 euroko gastua eragin zuen.

Era berean, Arabako SIA eta Web gunea – ur emaria neurtzeko estazioak tresna informatikoekin lotutako lanak egin dira, hala nola monitorizatutako piezometroak sartzea ur emaria neurtzeko estazioen aplikazioan.

2022an, halaber, bi lankidetza hitzarmen sinatu ziren

invirtieron 556.852 €. Dentro de estos trabajos se incluyen continuar con el proyecto de la nueva ETAP en Sobrón, finalizar los proyectos del colector de aguas residuales de Villodas y Trespuentes para conexión con la EDAR de Iruña de Oca, el proyecto del colector de saneamiento Alegría-Oreitia y el análisis de la solución para el saneamiento de Ibarra en Aramaio, así como iniciar el proyecto de la nueva EDAR de Ozaeta, elaborar el inventario de la red de Villanueva de Valdegovía o los proyectos de conexiones de abastecimiento de Mezkia, Turiso, Ozaeta, Hermua y Larrea para mejorar su garantía.

También se llevaron a cabo otros estudios para la legalización de concesiones, junto con algún ajuste o revisión de proyectos anteriormente redactados, así como los proyectos de instalación de placas solares en las depuradoras de Maestu, Agurain, Santa Cruz de Campezo, Izarra y bombeo de Lukiano-Aperregi.

En el marco del convenio para el mantenimiento y explotación conjunto de las depuradoras de los núcleos de Salvatierra/Agurain, Alegria-Dulantzi, Santa Cruz de Campezo/Santikurutze Kanpezu, Izarra, San Vicente de Arana/Done Bikendi Arana, Maestu/Maeztu, Bernedo, Ribabellosa, Isla de Zuaza y polígonos industriales de Gojain y Agurain, durante este año 2022 se dejó fuera de servicio la depuradora del polígono industrial de Agurain, al ser conectada a la nueva depuradora municipal, y se efectuó un gasto por la gestión de todas las depuradoras por importe de 436.615 €.

También se llevó a cabo el mantenimiento de la EDAR de Valdegovía con un coste de 118.464 € y 38.395 € en energía eléctrica.

Este año 2022 se amplió la red de piezómetros monitorizados en siete más, lo que supuso una inversión de 34.784 €, y se llevó a cabo el mantenimiento de las estaciones de aforos y los trece piezómetros monitorizados, lo que supuso un gasto total de 65.471 €.

También se han llevado a cabo trabajos asociados a las herramientas informáticas SIA Alava y Web-estaciones de aforo, como por ejemplo la integración de los piezómetros monitorizados en la aplicación de las estaciones de aforo.

Este año 2022 se suscribieron también dos convenios

Uraren Euskal Agentziarekin, Sobrongo zundaketatik hornidura hodia berritzeko obrak egiteko eta Manzanosen arazketa arazoa konpontzeko.

Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuaren jardun hori osatuz, Zerbitzuko teknikariek laguntza teknikoa eman diete toki erakunde eta partzuergoei ur horniduraren eta saneamenduaren arloan dauzkaten eskumenak erabiltzen laguntzeko asmoz, besteak beste, emakidak legeztatzeko, jarioak hautemateko eta bestelako laguntza teknikoak emateko, gehien-gehienetan.

DIRU SARRERAK

Gaubeako HUAn putzu septikoetako lohiak tratatzearen ondorioz, 1.914 euroko diru sarrerak jaso dira.

Zenbait herritako hondakin urak Gaubeako HUAn tratatzeko herri horiekin sinatutako hitzarmenak direla-eta 17.089 euro jaso dira eta, era berean, Arabako herriekin kontratu orokor baten barruan eta aldundiak gainbegiratuta haietako araztegiak kudeatu eta ustiatzeko sinatutako hitzarmenen esparruan 436.615 euro jaso dira.

Azkenik, hornidurarik gabe —alerta gorrian— dauden lurralde historiko honetako toki erakundeei laguntzeko jardunak finantzatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 11ko 25/2017 Foru Dekretua aplikatzearen ondorioz 21.966 euro jaso ziren.



de colaboración con la Agencia Vasca del Agua para la ejecución de las obras de renovación de la conducción de abastecimiento desde el sondeo de Sobrón y la solución al problema de depuración de Manzanos.

La actuación del Servicio de Calidad Ambiental se ha completado con la asistencia técnica proporcionada por parte de los técnicos del Servicio a los entes locales y consorcios al objeto de ayudarles en el desempeño de sus competencias en materia de abastecimiento y saneamiento, la cual se traduce habitualmente entre otras, en la colaboración en la legalización de concesiones, la búsqueda de fugas y la prestación de otros apoyos técnicos.

INGRESOS

Derivado del tratamiento de los lodos de fosas sépticas en la EDAR de Valdegovía se han obtenido unos ingresos de 1.914 €.

En base a los convenios firmados con varias localidades para el tratamiento de sus aguas residuales en la EDAR de Valdegovía se han obtenido 17.089 €, y del mismo modo, en el marco de los convenios firmados con localidades alavesas para la gestión y explotación de sus depuradoras en un contrato global con supervisión foral se han recibido 436.615 €.

Finalmente, por aplicación del Decreto foral 25/2017, del consejo de gobierno foral del 11 de abril, que aprueba las bases reguladoras para la concesión de subvenciones dirigidas a la financiación de actuaciones de auxilio a los entes locales de este Territorio Histórico en situación de desabastecimiento, Alerta Roja, se ingresaron 21.966 €.